*Horrela ba, TUSA 93-3. artikuluan horri buruz ezarritakoaren arabera, Administrazio Kontseiluaren herena osatu ahal izango dute gehienez Udalbatzako kideek. Gainera ordezkaritza karguetan egoteko ezgaitasun eta bateraezintasunei buruz legean eta Toki Erakundeetako Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduan ezarritakoen pean egongo dira kontseilariak.*

Así, a este respecto, el artículo 93,3 RSCL establece que, los/as miembros de la Corporación podrán formar parte del Consejo de Administración hasta un máximo del tercio del mismo y afectarán a los/as Consejeros/as las incapacidades e incompatibilidades que para ejercer cargos representativos señalan la ley y el Reglamento de Organización, y Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales.

***G. Gipuzkoako Ur Kontsortzioa***

*2014ko maiatzaren 7an Udabaltzako Osoko Bilkurak Ermuko Udala Gipuzkoako Ur Kontsortzioan sartzeko eskaera onartu zuen, aipatutako kontsortzioak Ermuko udalerriko uraren zikloko kudeaketa osoa bere gain har zezan, hau da, ura jasotzeko sare eta azpiegituren kudeaketa, altan zein bajako saneamendua, eta dagozkion zerbitzuak era egokian eta legeak ezarritakoaren arabera ematea eta baita hori dena mantentzeko eta ustiatzeko beharrezkoak diren inbertsioak egitea ere.*

*Hori horrela izanik, Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren estatutuak osorik onartu ziren, eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren uraren ziklo osoa emateko zerbitzurako ordenantza arautzailea eta indarrean dauden tarifak ere Udalak bere gain hartu zituen eta bere arauen barruan txertatu zituen.*

**G. Consorcio de Aguas de Gipuzkoa**

El Pleno de la Corporación aprobó el 7 de mayo de 2014 la solicitud de admisión del Ayuntamiento de Ermua en el Consorcio de Aguas de Gipuzkoa, con el objeto de que el citado Consorcio asuma la gestión del ciclo integral del agua en el término municipal de Ermua, que comprende la gestión de las redes e infraestructuras del abastecimiento de agua y saneamiento en alta y en baja, y la prestación de los servicios correspondientes en condiciones adecuadas y conforme a la normativa vigente, incluso la realización de las inversiones necesarias para su mantenimiento y explotación.

En consecuencia, se aprobaron los Estatutos del Consorcio de Aguas de Gipuzkoa en su integridad y plena aceptación, así como la Ordenanza Reguladora del Servicio del Ciclo Integral del Agua del Consorcio de Aguas de Gipuzkoa y sus tarifas, que el Ayuntamiento de Ermua asumió como propias e integró en su ordenamiento normativo.

*Ermuko Udalak Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren esku utzi ditu bere lagapen guztiak, ur-emarien ustiapena, azterketak, proiektuak, sareak eta instalakuntzak eta kontsortziaturik dauden zerbitzuekin loturiko bere izenean dauden gainerako guztiak.*

El Ayuntamiento de Ermua ha aportado al Consorcio de Aguas de Gipuzkoa todas las concesiones, aprovechamiento de caudales, estudios, proyectos, redes e instalaciones y demás medios afectos a la prestación de los servicios consorciados, de los que es titular.

*Gipuzkoako Ur Kontsortzioko Batzar Orokorrak Ermuko Udala kontsortzioan sartzea onartu zuen 2014ko ekainaren 17an eginiko bilkuran, akordioa ondorio guztietarako izanik eta hasiera 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera emanez.*

La Asamblea General del Consorcio de Aguas de Gipuzkoa aprobó la incorporación al mismo del Ayuntamiento de Ermua en la sesión celebrada el 17 de junio de 2014, acordándose la plena efectividad del acuerdo e inicio de la integración a partir del 1 de enero de 2015.

*Kontsortzioko 14.2 a) artikuluak ezarritakoaren arabera "Udalaren ordezkaritza alkatearena izango da edota berak delegatutako Udal Batzarreko kidearena", beraz, izendapena Osoko Bilkurari dagokio, alkatearen proposamenari jarraiki.*

Conforme establece el artículo 14,2 a) de los Estatutos del Consorcio, "La representación de los municipios recaerá en el Alcalde o en el miembro de la Corporación que ésta designe", por lo que el nombramiento compete al Pleno a propuesta de la Alcaldía.

*Ur Kontsortzioko batzarrean udalerri bakoitzak duen ordezkaritza haztatutako botoaren araberakoa izaten da: 15.000 eta 25.000 biztanleen arteko udalerriei, horien artean Ermuari, ordezkari bat dagokie eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren Batzar Orokorrean zazpi boto.*

La representación de cada municipio en la Asamblea del Consorcio se realiza en régimen de voto ponderado, correspondiendo a los municipios de 15.001 a 25.000 habitantes, entre los que se encuentra Ermua, un/a representante y 7 votos ponderados en la Asamblea General del Consorcio de Aguas de Gipuzkoa.

***H. Herri ikastetxeetako eskola kontseilua***

**H. Consejo Escolar de los colegios públicos de enseñanza**

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailak azaroaren 26an 684/1991 Dekretua eman zuen eta Dekretu horrek aldarazi egin zuen urriaren 3ko 213/1989 Dekretua. 213/1989 Dekretuak gainera apirilaren 15eko 82/1986 Dekretua aldatu zuen eta dekretu horren 13. artikuluan xedatutakoaren arabera, udalak mahaikide edo ordezkari bat izendatu behar du*

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 13 del Decreto 82/1986, de 15 de abril, modificado por Decreto 213/1989, de 3 de octubre, modificado a su vez por Decreto 684/1991, de 26 de noviembre, del Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco, corresponde a los municipios el nombramiento de un/a vocal o representante

*udalerrian dagoen derrigorrezko lehen eta bigarren hezkuntzako herri-ikastetxe bakoitzaren eskola-kontseilurako.*

en el Consejo escolar de cada colegio público de enseñanza de educación primaria y secundaria obligatoria, respectivamente, existente en el municipio.

*Ermuan dauden era horretako ikastetxe kopurua oinarritzat hartzen baldin badugu, honako ikastetxe hauetarako izendatu behar dira ordezkariak:*

En atención al número de centros de estas características radicados en Ermua, procede efectuar este nombramiento para cada uno de los citados:

*a) San Lorenzo ikastetxea.*

a) Colegio San Lorenzo.

*b) Ongarai Eskola.*

b) Ongarai Eskola.

*c) Ongarai BHI.*

c) IES Ongarai.

*d) Anaitasuna ikastola.*

d) Ikastola Anaitasuna.

*e) Anaitasuna BHI.*

e) IES Anaitasuna.

*f) Eibar-Ermua Institutua*

f) Instituto Eibar-Ermua

*Momentu honetan Ongarai BHI eta Anaitasuna BHI ikastetxeak euren egiturak batzeko prozesuan ari dira, Ermua BHI izena hartuko duen Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoko hezkuntza zentro bakarra sortzeko helburuaz.*

En este mometo, el IES Ongarai y el IES Anaitasuna se encuentran en pleno proceso de concentración de sus estructuras, al objeto de unificar la educación secundaria y el bachillerato en un único centro, que se denominará IES Ermua.

*Hau guztia kontuan hartu beharra dago eta Korporazioko kide berak, momentuz, bi ikastetxeetako ordezkaritza izango luke, horrela martxan dagoen ikastetxe bien batuketa amaitzen denean akordioa beste behin hartu beharra ekidingo genuke.*

En consecuencia, debe tenerse en cuenta esta circunstancia y nombrar a un/a mismo/a miembro de la Corporación para que ostente, de momento, la representación en ambos centros, de modo que se evite tener que reproducir este acuerdo cuando se materialice el proceso de concentración en marcha.

***I. Debegesa***

*DEBEGESA Debabarrenako Garapen Ekonomikorako sozietatea da. 1985ean jaio zen, eskualdearen garapen jasangarria bultzatzeko asmoz, eskualde-beharrak hobekuntzako akzio zehatzak bihurtuz.*

**I. Debegesa**

DEBEGESA es la Sociedad para el Desarrollo Económico de Debabarrena. Nació en 1985, con el fin de impulsar el desarrollo sostenible de la comarca, transformando necesidades comarcales en

acciones concretas de mejora.

*DEBEGESa, Debabarreneko zortzi udalen ekimenez sortu zen (Deba, Eibar, Elgoibar, Ermua, Mallabia, Mendaro, Mutriku eta Soraluze) eta herritarrentzako zerbitzu publikoa eskaintzen du, hasierako udal sortzaileekin, Aldundiekin, Eusko Jaurlaritzarekin eta Europarekin elkarlanean.*

DEBEGESA surgió de la voluntad de los 8 Ayuntamientos de la comarca de Debabarrena (Deba, Eibar, Elgoibar, Ermua, Mallabia, Mendaro, Mutriku y Soraluze) y presta un servicio público a la ciudadanía, colaborando para ello con los propios Ayuntamientos promotores, con las diputaciones forales, con el Gobierno Vasco y con la Unión Europea.

*DEBEGESAko Administrazio kontseilua arestian aipatutako zortzi udalerriko alkateek osatzen dute.*

El Consejo de Administración de DEBEGESA está compuesto por los Alcaldes y Alcaldesas de estos 8 municipios.

***J. Izarra Fundazioa***

**J. Fundación Izarra**

*Izarra fundazioa Ermuko Udalak sustatutako eta sortutako irabazi-asmorik gabeko fundazioa da, lurralde-balioa sortzera bideratua. Euskadi Erkidegoko fundazio erregistroan inskribaturik dago F-345 zenbakiarekin eta bere helburu nagusia Ermuko udalerrian eta bere inguruan enplegua eta sistema produktiboa, zuzenean zein zeharka, garatzen laguntzen dituzten ekintza ekonomikoak eta sozialak sustatu, garatu eta laguntzea da, bizitza-kalitateko estandar altuko lurralde garapen eredu iraunkorra bultzatuz.*

La Fundación Izarra es una entidad sin ánimo de lucro impulsada y creada por el Ayuntamiento de Ermua, orientada a la generación de valor territorial. Está inscrita en el registro de fundaciones de la Comunidad Autónoma del País Vasco con número F–345 y su objeto general es la promoción, el desarrollo y el apoyo de las actividades económicas y sociales que contribuyan, directa o indirectamente, a impulsar el desarrollo del sistema productivo y del empleo en el ámbito territorial de Ermua y su entorno, potenciando un modelo de desarrollo territorial sostenible, con altos estándares de calidad de vida.

*Izarra fundazioa, gure udalerriko baliabide endogenoak ustiatzera bideratutako tokiko garapenaren barruan Udal politikaren beste tresna bat da, bere helburua Ermuko bideragarrotasun sozioekonomikoa ziurtatzen bermatua da. Horrez gain, Izarra fundazioak ondoko helburu espezifikoak ditu:*

La Fundación Izarra es un instrumento más de la política municipal de desarrollo local orientada a explotar al máximo los recursos endógenos de nuestro municipio, así como la captación de actividad económica proveniente de fuera, con el objetivo de garantizar la viabilidad socioeconómica de Ermua. La Fundación Izarra tiene como objetivos específicos:

*Lurralde mailako lehiakortasuna lagundu eta bultzatzea, ikerketari,*

Apoyar e impulsar la competitividad territorial mediante la puesta en marcha de

*garapenari eta berrikuntzari, sormenari, kultura ekintzaileari eta pertsonen trebetasun eta gaitasunei loturiko ekintzak martxan jarriz.*

acciones relativas a la investigación, desarrollo e innovación, la creatividad, la cultura emprendedora y las capacidades y habilidades de las personas.

*Enpresetako aniztasuna sustatzen lagunduko duten ekintzak garatzea, Zentro teknologikoekin, Hezkuntza zentroekin eta enpresa erakundeekin elkarlanean egindako proiektuak garatuz eta abiatuz.*

Desarrollar actividades para el fomento de la diversificación empresarial mediante el desarrollo y ejecución de proyectos en colaboración con entidades empresariales, formativas y centros tecnológicos.

*Edozein mailetako heziketa eta lan orientazioa sustatzea, pertsonen kualifikazioa, bere lan-trebetasunak eta gaitasunak handituz, hobetzeko helburuaz*

Impulsar la formación y la orientación profesional de cualquier nivel para mejorar la cualificación de las personas fomentando sus competencias profesionales y habilidades.

*Enpresa berriak sortzeko inguruan dauden aukerak hobetzea, arlo berritzaileetan eta, batik bat, arlo dibertsifikatzaileetan planak garatzen dituzten pertsona ekintzaileak lagunduz.*

Mejorar las oportunidades disponibles en la región para crear nuevas empresas, mediante la apuesta por las personas emprendedoras que desarrollen sus planes de negocio en áreas innovadoras y básicamente diversificadoras.

*Tokiko enpresa eredua laguntzea, inbertsioetan, enpleguan eta balioa sortzean enpresek egiten dituzten ekarpenak hobetzen dituena eta elkarlanean oinarritutakoa dagoena.*

Favorecer un modelo de desarrollo empresarial local basado en la cooperación que mejore la aportación de las empresas existentes en cuanto a inversiones, empleo y creación de valor.

*Ermutik pertsona eta enpresa lehiakorren ihesa ekiditea eta sektore berrietarako balio ekonomiko eta soziala erakartzea.*

Evitar la fuga de Ermua de personas y empresas competitivas y atraer valor económico y social relacionado con sectores emergentes.

*Lehen aipatutako interes orokorreko sorkuntzako helburuei erantzuten dieten beste edozein ekinbide eta jardun.*

Cualquier otra iniciativa y acción que responda a la consecución de los fines fundacionales de interés general anteriormente citados.

*Izarra fundazioa Ermuko Udala izendutako hiru ordezkarik, lehendakaritza hartzen duen Alkateak eta bi bokalek, eta Ermuko enpresetako beste sei ordezkarik osatutako patronatua da. Lehendakaritza*

La Fundación Izarra se rige por un patronato formado por tres representantes del Ayuntamiento de Ermua, el/la Alcalde/sa que ostenta la Presidencia, y dos vocales, y seis representantes de empresas de Ermua.

*Ermuko Alkateak hartzen du.*

Corresponde la presidencia al Alcalde de Ermua.

*Izarra Fundazioko karguek ez daukate diru-saririk, ezta parte-hartzeagatik inolako dietarik hartzen ere. Gainera, Izarra Fundazioko partaideek ezin dute euren burua edota lehen mailan erlazionaturiko enpresak edo pertsonak kontratu.*

Ninguno de los cargos del patronato de la Fundación Izarra está remunerado, ni recibe ningún tipo de dieta por su asistencia. Además, los/as miembros del patronato de la Fundación Izarra no podrán acordar ninguna acción que implique la contratación de sí mismos o de empresas o personas vinculadas a las mismas en primer grado.

***K. AIC-Automotive Intelligence Center Fundazioa***

**K. Fundación AIC-Automotive Intelligence Center Fundazioa**

*Ermua Hiriko Udalak, 2006ko azaroaren 2an eginiko Osokoaren Bilkuran behin-betiko izaeraz onetsi zuen AIC-Automotive Intelligence Center Fundazioa sortzea eta horretan parte hartzea.*

El Ayuntamiento de la Villa de Ermua aprobó con carácter definitivo la creación y su integración en la Fundación AIC-Automotive Intelligence Center Fundazioa, en sesión celebrada por el Pleno de la Corporación de fecha 2 de noviembre de 2006.

*Aipaturiko fundazioaren estatutuak Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 244. alean 2006ko abenduaren 26koan, argitara eman ziren oso-osorik.*

Los estatutos de la citada Fundación fueron publicados íntegramente en el Boletín Oficial de Bizkaia número 244, de fecha 26 de diciembre de 2006.

*Bestalde, aipaturiko estatutuen protokoloak Bilboko Ramón Múgica Alcorta notarioak egin zituen 2006ko urriaren 6an, 1.704 protokoko-zenbakia emanik, eta Ogasun Ministerioaren Erakunde Juridikoen Erroldan inskribatu zen G95442232 IFK zenbakiarekin.*

De otra parte, los mencionados estatutos fueron protocolizados ante el notario de Bilbao, Ramón Múgica Alcorta, el día 6 de octubre de 2006, con el número 1.704 de su protocolo, e inscrita la Fundación en el Censo de Entidades Jurídicas del Ministerio de Hacienda, con el CIF número G 95442232.

*AIC-Automotive Intelligence Center Fundazioaren estatutuetako 22. artikuluan ezarritakoari jarraituz, Udal Korporazioari dagokio Ermua Hiriko Udalaren izenean fundazioaren protokoloa eratu beharko duen pertsona izendatzea.*

De conformidad con lo establecido en el artículo 22 de los estatutos de la Fundación AIC-Automotive Intelligence Center Fundazioa, corresponde a la Corporación designar a la persona que deba integrar el Protocolo de la Fundación en representación del Ayuntamiento de la Villa de Ermua.

*Fundazio honen xedea automozioaren sektorean balioa sortzeko zentro bat egiteko ekimena egikaritzea da. Aipaturiko zentroa goi-mailako prestakuntzadun pertsonen koordinazioan oinarrituko da, xedeak honakoak izanik: sektorearen ezagutza garatzea; orotariko enpresen lankidetza zuzena izango duten proiektuak burutu eta jardunean jarriz ikerketa zientifikoko eta garapen teknologikoko ekintzak garatzea, automozio-sektorearen industrian lehiakortasuna eta berrikuntza areagotzeko.*

El objeto de esta Fundación es el ejercicio de la iniciativa consistente en la creación de un centro de generación de valor para el sector de automoción basado en la coordinación de personas altamente cualificadas, a fin de desarrollar el conocimiento en el sector, el desarrollo de actividades de investigación científica y desarrollo tecnológico mediante el desarrollo y ejecución de proyectos en colaboración principal y directa con todo tipo de entidades empresariales, que redunde de manera directa en el incremento de la competitividad e innovación en la industria del sector de automoción.

*Fundazioak duen beste helburu bat edozein maila profesionaletako heziketa suspertzea, automozio-sektorean lanean ari diren pertsonen lehiakortasuna eta trebetasunak sustatuz, beraien prestakuntza-maila hobetzeko; automozio-sektorearen zerbitzurako proiektu berritzaileak sortaraztea eta, azken baten, arestian aipaturiko interes orokorreko zentroaren xedeak lortzeko beste edozein ekimen edo ekintza bultzatzea.*

Constituye asimismo el objeto de la Fundación el impulso de la formación en cualquier nivel profesional para mejorar la cualificación de las personas del sector de automoción fomentando su competitividad y su habilidades; atraer proyectos innovadores al servicio del sector de automoción; y cualquier otra iniciativa y acción que tienda a la consecución de los fines fundacionales de interés general anteriormente mencionados.

*Horretarako, Ermua Hiriko Udala AIC-Automotive Intelligence Center Fundazioan sartuko da ondorengo enpresekin batera: Bizkaiko Foru Aldundia, Amorebieta-Etxanoko Udala, Autokomp Ingenieria S.A. , ZF Lemförder TVA S.A., Carbureibar S.A., Grupo Pierburg, Grupo Amaya Tellería-G.A.T. Staff S.L., Microdeco S.A. eta Euskadiko Automozio Klusterra (ACICAE).*

Para ello, el Ayuntamiento de la Villa de Ermua se integra en la citada Fundación junto a la Diputación Foral de Bizkaia; el Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano; Autokomp Ingeniería S.A.; ZF Lemförder TVA, S.A.; Carbureibar S.A.; Grupo Pierburg; Grupo Amaya Tellería-G.A.T. Staff, S.L.; Microdeco, S.A.; y el Cluster de Automoción de Euskadi (ACICAE).

*Fundazioaren izaera pribatua eta iraunkorra izango da eta bere jarduna Euskal Herriko Fundazioei buruzko 12/1994 Legeak, ekainaren 17koak, xedatutakoari lotuko zaio.*

La Fundación tiene carácter privado y naturaleza permanente y su actividad se rige por lo dispuesto en las disposiciones de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco.

*Fundazioa 270.000 € (berrehun eta hirurogeita hamar mila euro) hasierako kapital sozialarekin sortu zen, horretan Ermuko Udalak 30.000 €ko (hogeita hamar mila euroko) ekarpena egin zuen fundazioaren ondare-zuzkidura moduan.*

La Fundación se Constituyó con un capital social inicial de 270.000€ (doscientos setenta mil euros), al que el Ayuntamiento de Ermua contribuyó con la aportación de 30.000€ (treinta mil euros) en concepto de dotación patrimonial de la citada Fundación.

*Fundazio honetako Udal ordezkaritza Alkateari dagokio.*

La representación del Ayuntamiento en esta Fundación está atribuida al/a la Alcalde/sa.

***L. Bizkaia Sortaldeko Industrialdea, S.A***

**L. Bizkaia Sortaldeko Industrialdea, S.A**

*Ermua Hiriko Udalak 2001eko uztailaren 10ean eginiko Osokoaren Bilkuran behin-betiko onetsi zuen "Mallabia Industrialdea S.A." delako sozietate anonimoan parte hartzea, eta horretarako, Mallabiko Udalak zituen akzio batzuk erosiz.*

El Ayuntamiento de la Villa de Ermua aprobó con carácter definitivo su integración en la sociedad anónima denominada "Mallabiako Industrialdea, S.A.", en sesión celebrada por el Pleno de la Corporación de fecha 10 de julio de 2001, a través de la adquisición de parte de las acciones de las que era titular el Ayuntamiento de Mallabia.

*Bestalde, aipaturiko estatutuen protokoloak Ermuko Sergio González Delgado notarioak egin zituen 2000ko azaroaren 30ean, 2.089 protokoko-zenbakia emanik, eta Ogasun Ministerioaren Erakunde Juridikoen Erroldan inskribatu zen A 95133567 IFK zenbakiarekin.*

Los estatutos de la citada sociedad anónima fueron protocolizados ante el notario de Ermua, Sergio González Delgado, el día 30 de noviembre de 2000, con el número 2.089 de su protocolo, e inscrita la sociedad anónima en el Censo de Entidades Jurídicas del Ministerio de Hacienda, con el CIF número A 95133567.

*Bestalde, fundazio hau Eusko Jaurlaritzaren Fundazioen Erregistroan inskribatu zen 4.029. liburukian, aipatutako erregistroaren 8 sekzioan, 34. folioan, BI-30744 orrian, 1. inskripzioan.*

Igualmente fue inscrita la sociedad anónima en el Registro Mercantil de Bizkaia, en el tomo 4.029 de la Sección 8 del citado Registro, folio 34, hoja BI-30744, inscripción 1ª.

*2012. urtean, Mallabiko Industrialdea SA eta Okamika Industrialdea SA batu egin ziren eta Bizkaia Sortaldeko Industrialdea SA sortu zen.*

En el año 2012 se produjo la fusión de las sociedades Mallabiako Industrialdea, S. A., y Okamika Industrialdea, S. A., y se creó la sociedad Bizkaia Sortaldeko Industrialdea, S. A.

*Sozietate anonimo honen xedea Bizkaiko Lurralde Historikoan, Mallabia,*

El objeto de esta sociedad anónima es estimular y promover la iniciativa y la

*Ermua eta Zaldibarren zehazki, ekonomi jarduera berrien ekimena eta inbertsioa suspertu eta bultzatzea da, enpresak ezartzeko gaitua dagoen lurra urbanistikoki sustatuz urbanizazio-, birzatitze-, konpentsazio-proiektuak eta hirigintza planak edo hirigintzako legerian aurreikusten diren bestelako plangintza-figura batzuk suspertu eta gauzatuz, bai eta urbanizatzeko gai izan daitekeen edozein lur-mota eskuratuz eta ekonomi jarduēretarako lurra sustatuz*

*Sozietatate anonimo honen xede da baita ere pabiloiz osaturiko industri konplexuak eta eraikuntza osagarriak egitea, horien titulartasuna erabat eskualdatu arteko gestio guztiak eginez.*

*Bizkaia Sortaldeko Industrialdea SA izeneko sozietateko Udal ordezkaritza Alkateari dagokio.*

*Hori guztia jakinarazi dizut jakin dezazun eta behar diren ondorenak izan ditzan.*

inversión de actividades económicas en el Territorio Histórico de Bizkaia, particularmente en los municipios de Mallabia, Ermua y Zaldibar, mediante la promoción urbanística de suelo apto para la implantación empresarial, mediante la promoción y redacción de planes urbanísticos y proyectos de urbanización, reparcelación, compensación o cualesquiera otras figuras previstas en la legislación urbanística; así como mediante la adquisición por cualquier título de suelo apto para urbanización y promoción de suelo para actividades económicas.

Asimismo constituye el objeto de la sociedad anónima la construcción de complejos industriales de pabellones y edificaciones complementarias, gestionando los mismos hasta la total transferencia de su titularidad.

La representación del Ayuntamiento en la sociedad Bizkaia Sortaldeko Industrialdea, S. A., está atribuida al/a la Alcalde/sa.

Es lo que comunico para su conocimiento y a los efectos oportunos.

Fdo./Sin.:
Secretario/Idazkaria
José Antonio Fernández Celada
19-06-2015 12:03